

VILLA LERIA
D MAILA

ALDAPETA 72



Frantzisko Urkola, 1923.

Deskribapena

Ilaran antolatutako etxebizitza-multzo interesgarria, eraikinean eta lorategian mehelinak partekatzen dituen tipologiari jarraikiz altxatua. Urkolak mota honetako beste bi lan egin zituen hurbileko La Fe pasealekuan, alde nagusi bakarra dutela fatxada-lerro jarraitua antolatzea, bai espaloian bertan bai lorategi bitartez atzeraemanda. Etxebizitzak mailaz maila egokitzen zaizkio maldari; horretarako, murrua mentsula gainean aurreratzen da, hain zuzen ere lehen solairuko hegala egiten duen moduan. Eraikitzeke modu hori murruz bereizitako kaleko baserrietatik iritsi zen estilo neoeuskaldunera. Bigarren etxeak murre arteko bereizketa bera eta lehen solairuko hegala bera dauzka. Oraingoan, baina, erlaitzaren detailea zuberuz egiten da, eta elementu nagusia arku baten atzean, fatxada mutur batean, atzeraemanda dagoen ataria da, elementu erregionalista erantsia bera.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadako eta murruetako apaindura-erliebeak eta teilatu-hegaleko zuberuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.